

Sara Etxabe Etxeberria

D maila • Aipamena

Nire izena Sara Etxabe da, eta 2004-ko abuztuaren 15-ean jaio nintzen. Zaldibian bizi naiz, aurten DBH-ko 2.maila egiten ari naiz Oianguren Institutoan (Ordizian).

Betidanik gustatu izan zait bertsolaritza, baina sekula ez nuen lehiaketa batean parte hartu. Ilusio handia izan da Beasaingo bertso lehiaketako aipamena jasotzea. Nire zaletasunak asko dira baina horietako bat zaldiak dira; gustatuko litzaidake zaldi lehiaketa batean parte hartzea. Beste zaletasun bat musika da; nik lehen txistua jotzen nuen baina orain gitarra jotzen dut. Kantatzea ere asko gustatzen zait eta nire ametsa abeslaria izatea da. Zaletasun

gehiago ere baditut: lagunekin egotea, familiarekin egotea... Eta amaitzeko espero dut nire bertsoak gustatzea!!



ZALDIBIA BISITATZEN

Doinua: Badira hiru aste

I)

Zaldibiako txoko ederrenak
Larraitz bidean dituzu
hartu kotxea iritsi eta
hantxe zure zain daukazu
Urtsuhaundi ta Urtsuko errota
begi bistan daude aizu
ta handik Aralar aldeko bista
asko gustatuko zaizu.(bis)

II)

Zaldibiako leku ederrenak
Tejeria artean daude
pixka bat gora joan ezker
Saturdi auzoan zaude
hango ermita baserri eder
ta baso politak ere
ezin dituzu imajinatu
bertara etorri gabe.(bis)

III)

Akapulko re bada Zaldibin
mendiko soziedadea
asteburutan Gaztelu alden
ikus daiteke jendea
mahai ta aulkiak daude kanpon
bazkaltzeko dotorea
helduek jaten duten bitarten
gu parken ibiltzen gea.(bis)

IV)

Zaldibiako txoko ederrena
Jupiter urjauzia duzu
hortik saltatu eta bainatu
aukera ederra duzu
baina altura handia du ta k
ontuz ibil zaitez aizu
hemen bainatu behar baduzu
kaskoa ekarri zazu.(bis)